TOLOSAKO
UDALA

# Establezimendu komertzialetako errotuluak euskaratzeko dirulaguntzak

1.Helburua.

2.Bete beharreko baldintzak.

3.Finantziazioa.

4.Eskaerak.

5.Dirulaguntzen zenbatekoa.

6.Erabakia.

7.Onuradunen betebeharrak.

8.Dirulaguntza ordaintzeko modua.

9.Dirulaguntzen bateragarritasuna.

10.Dirulaguntza aldatzea.

11. Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

12. Araubidea.

**1. Helburua.**

Dirulaguntza hauen helbura Tolosako establezimendu komertzialetako kanpoko errotuluak eta hizkuntza paisaia euskaraz jartzeko sustapena egitea da.

**2.Bete beharreko baldintzak.**

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. zatiek adierazitako kausaren baten pean ez egotea.
- Establezimenduaren fatxadan dagoen errotulu nagusia 2021eko urriaren 1etik 2022ko abenduaren 30 artean aldatzea edo berritzea. Hori ziurtatzeko ordainagiriaren data kontuan hartuko da.
- Errotulu nagusiak euskara hutsez

1.Objeto.

2.Requisitos.

3.Financiación.

4.Solicitudes.

5.Importe de las subvenciones a conceder.

6.Resolución.

7.Obligaciones de la parte beneficiaria.

8.Forma de abono de la subvención.

9.Compatibilidad de las subvenciones.

10.Modificación de la subvención.

11. Gastos que se pueden modificar.

12. Normativa.

**1. Objeto.**

El objeto de estas subvenciones es impulsar el uso del euskera en los rótulos exteriores y paisaje lingüístico de los establecimientos comerciales de Tolosa.

**2. Requisitos a cumplir.**

- No incurrir en ninguna de las causas señaladas en los apartados 2 y 3 del articulo 13 de la ley 38/2003 de17 de noviembre.
- Que el rótulo principal de la fachada del establecimiento se modifique o renueve entre el 1 de octubre del 2021 y el 30 de diciembre del 2022. Para certificarlo se tendrá en cuenta la fecha del recibo.
- El rótulo principal deberá estar íntegramente en euskera (p. ej.:

egon behar du (Adib.: Larrarte arrandegia).

- Errotulu nagusiak izen berezia bakarrik badu, ez da dirulaguntzarik emango (Adib. Larrarte).

- Establezimenduaren hizkuntza paisaia finko eta aldakorrak (erakusleihoa, toldoa, barruko oharrak, prezioak...) euskaraz ere egon behar du. Horretarako laguntza behar izanez gero, Udal Euskara Sailarekin harremanetan jarri beharko da (euskara@tolosa.eus).

- Tolosako Ekonomia-jardueren erroldan altan egotea.

- Dirulaguntza jaso ondoren, establezimenduaren errotulu nagusiaz gain, hizkuntza paisaia finko eta aldakorrak ere euskaraz izatea. Hala ez bada, bere garaian jasotako dirulaguntza itzul dezan eskatu ahal izango zaio.
- Hurrengo agiriak aurkeztea:
    - Euskara eta Hezkuntza saileko dirulaguntza eskaera egiteko ESK-EU-01 inprimakia, behar bezala beteta.
    - Establezimendua Tolosako Ekonomia-jardueren erroldan egotearen ziurtagiriaren kopia, baldin eta udalak kontsulta ofizioz egitearen aurkako eskubidea agertu badu .
    - Errotulu nagusiarengatik ordaindutako diru-kopuruaren faktura.
    - Errotulu nagusiarengatik ordaindutako ordainagiria.

Larrarte arrandegia).

- En el caso de que el rótulo principal se componga únicamente de un nombre propio, no se concederá ninguna subvención (p. ej.: Larrarte)

- El paisaje lingüístico, tanto el fijo como el no fijo (en el escaparate, toldo, notas del interior, precios…), deberá estar redactado también en euskara. En caso de necesitar ayuda, se deberá contactar con el Departamento de Euskera del Ayuntamiento (euskara@tolosa.eus).

- Figurar en el padrón de actividades económicas de Tolosa.

- Una vez recibida la subvención, además del rótulo principal deberá mantenerse también en euskera el paisaje lingüístico del establecimiento. En caso contrario, se podrá requerir la devolución de la subvención percibida.

- Aportar la siguiente documentación:
    - Impreso de solicitud ESK-EU-01 del departamento de Euskara y Educación, debidamente cumplimentado.
    - Copia del certificado acreditativo de que el establecimiento figura en el padrón de actividades económicas de Tolosa, siempre y cuando se haya opuesto a que el ayuntamiento lo consulte de oficio.
    - Factura de la cantidad abonada por el rótulo principal.
    - Justificante de pago de la cantidad abonada por el rótulo principal.

| | |
|---|---|
| **3. Finantziazioa.**<br><br>Tolosako Udalaren 2022ko aurrekontuko 0900 481.0133510 partidaren kargura, 2.000 euro.<br><br>**4. Eskaerak.**<br><br>Inprimakiak behar bezala beteta aurkeztu beharko dira Tolosako Udalaren erregistro elektronikoaren bidez, edo Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan gaitutako edozein erregistroren bidez.<br><br>Eskaerek Euskara eta Hezkuntza Sailaren oinarri berezietan ezarritako betebeharrak beteko dituzte. Eskaera aurkezteak esan nahi du deialdi honetan jasotako baldintza guztiak onartzen direla.<br><br>**5. Eskainiko diren dirulaguntzen zenbatekoa.**<br><br>Euskara hutsean idatzitako errotulu nagusi eta berriaren %50 ordainduko dio Tolosako Udalak eskatzaileari, 450 €-ko mugapean.<br><br>Laguntza honetarako aurreikusitako aurrekontua agortuko balitz, sortutako eskubideak hurrengo urteko aurrekontuen kontura kitatuko lirateke eta lehentasuna izango lukete hurrengo urteko eskarien aurrean.<br><br>**6. Erabakia.**<br><br>Eskaerak iritsi ahala aztertuko ditu Euskara Sailak.<br><br>Azkenik, Euskara Sailak, txosten teknikoa egin ondoren, proposamena egingo dio Alkatetzari erabakia har dezan.<br><br>Erabakia interesatuari jakinaraziko zaio eta, halaber, emandako dirulaguntzen informazioa dagokion moduan argitaratuko da. | **3. Financiación.**<br><br>Importe de 2.000 euros a cargo de la partida 0900 481.0133510 del presupuesto municipal del 2022.<br><br>**4. Solicitudes.**<br><br>Los impresos deberán presentarse debidamente cumplimentados a través del registro electrónico del Ayuntamiento de Tolosa o a través de cualquiera de los registros habilitados en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común.<br><br>Las solicitudes cumplirán los requisitos establecidos en las bases específicas del Departamento de Euskera y Educación. La presentación de la solicitud supone la aceptación de todas las condiciones recogidas en la presente convocatoria.<br><br>**5. Importe de las subvenciones a conceder.**<br><br>El Ayuntamiento de Tolosa abonará a quien lo solicite el 50% del coste del nuevo y principal rótulo redactado íntegramente en euskera, con un límite de 450 €.<br><br>En caso de agotarse el presupuesto previsto para estas ayudas, el derecho a la subvención se liquidará con cargo al presupuesto del año siguiente, y tendrá preferencia frente a las solicitudes presentadas durante ese ejercicio.<br><br>**6. Resolución.**<br><br>El Departamento de Euskera examinará las solicitudes a medida que se presenten.<br><br>Una vez que el Departamento haya emitido su informe técnico, se propondrá la concesión de subvenciones a Alcaldía, para que esta dicte la resolución correspondiente.<br><br>La resolución adoptada se comunicará a la parte interesada y se publicará del modo |

| | |
|---|---|
| | que corresponda. |
| **7. Onuradunen betebeharrak.** | **7. Obligaciones de la parte beneficiaria.** |
| Onuradunaren betebeharrak dira: | Son obligaciones de la parte beneficiaria: |
| a) Ordenantza Orokorraren 11. artikuluan xedatutakoa. | a) Lo regulado en el artículo 11 de la Ordenanza General. |
| b) Dirulaguntzaren emakida edo erabilpenerako baldintzak, jarduerak eta helburuak bete direla Tolosako Udalean justifikatzea. | b) Justificación ante el Ayuntamiento de Tolosa del cumplimiento de las condiciones, actividades y objetivos de la concesión y uso de la subvención. |
| c) Udalak egin beharreko egiaztapen jarduketen pean jartzea. | c) Someterse a las actuaciones de comprobación del Ayuntamiento. |
| d) Tolosako Udalari berak lagundutako jarduera berberengatik jasotako beste diru-laguntzen berri ematea. | d) Comunicar al Ayuntamiento de Tolosa si recibe algún otro tipo de ayuda por la actividad objeto de subvención. |
| e) Jasotako dirulaguntza itzultzea, horretarako arrazoiren bat izango balitz. | e) En caso de que exista algún motivo para la devolución de la ayuda recibida, efectuar dicha devolución. |
| **8. Dirulaguntza ordaintzeko modua.** | **8. Forma de abono de la subvención.** |
| Dirulaguntzaren % 100 ordainduko da erabakia hartu eta jakinarazten denean. | Se abonará 100% de las subvención tras la notificación del acuerdo de su concesión. |
| **9. Dirulaguntzen bateragarritasuna.** | **9. Compatibilidad de las subvenciones.** |
| Udalak emandako dirulaguntza bateragarria da helburu berberarengatik jasotako beste edozein dirulaguntzarekin. | La subvención concedida por el Ayuntamiento es compatible con cualquier otra recibida para el mismo fin. |
| Hala ere, dirulaguntza ezin izango da izan, beste dirulaguntza batzuekin batera zein bera bakarrik, lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa. | Sin embargo, el importe no podrá exceder, por sí solo o en concurrencia con otras subvenciones, del coste de la actividad subvencionada. |
| **10. Dirulaguntza aldatzea.** | **10. Modificación de la subvención.** |
| Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzen aldaketek, eta, edozein kasutan, beste entitate publiko edo pribatu batzuetatik konkurrentzian jasotako laguntzek, emakidaren erabakia aldatzea ekar dezakete. | Cualquier alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención y, en todo caso, la obtención concurrente de subvenciones o ayudas otorgadas por otras entidades públicas o privadas, podrá dar lugar a la modificación |

TOLOSAKO UDALA

| | |
|---|---|
| | de la resolución de la concesión de la ayuda. |
| **11. Diruz lagundu daitezkeen gastuak.**<br><br>Fatxadako errotulu nagusia euskaraz jartzeagatiko gastuak baino ez dira diruz lagunduko. | **11. Diruz lagundu daitezkeen gastuak.**<br><br>Únicamente serán subvencionables los gastos derivados de la colocación del rótulo principal de fachada en euskera. |
| **12. Araudia.**<br><br>Deialdi honetan espresuki zehaztuta ez den orotan, lege eta ordenantza hauek izango dira aplikaziozkoak:<br><br>– Azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra (azaroaren 18ko Estatuko Aldizkari Ofiziala); horren garapeneko Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua (uztailaren 25eko Estatuko Aldizkari Ofiziala).<br><br>– Tolosako Udalaren eta bere erakunde publikoen dirulaguntzen ordenantza orokorra (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2017ko uztailaren 7a, 130 zk.).<br><br>– Tolosako Udaleko Euskara eta Hezkuntza Sailak kudeatutako programen konturako zenbait diru laguntza arautzen dituen ordenantza (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2017ko uztailaren 10a, 131 zk.). | **12. Normativa.**<br><br>En todo lo no previsto en la presente convocatoria serán de aplicación las siguientes disposiciones legales:<br><br>— La Ley 38/2003, del 17 de noviembre, General de Subvenciones (Boletín Oficial del Estado de 18 de noviembre) y su Reglamento de desarrollo aprobado por Real Decreto 887/2006, del 21 de julio (Boletín Oficial del Estado de 25 de julio);<br><br>— La Ordenanza general de subvenciones del Ayuntamiento de Tolosa (Boletín Oficial de Gipuzkoa del 7 de julio de 2017, nº 130).<br><br>— La Ordenanza reguladora de diversas subvenciones sobre programas gestionados por el Departamento de Euskera del Ayuntamiento de Tolosa (Boletín Oficial de Gipuzkoa del 10 de julio de 2017, nº 131). |

Tolosan, 2022ko apirilaren 14an

Zinegotzi-delegatua

Xabier Balerdi Tolosa